

12

TABAKALERA



# Orriak

## LANDA LAN A DOCUMENTATION OF DARCY LANGE



2018.12.01 — 2019.03.10

### 2 ERAKUSKETA ARETOA / SALA DE EXPOSICIONES 2 / EXHIBITION HALL 2

Antolatzaile-kidea eta komisarioa / Co-organización y comisariado / Co-organization and curating: **Tractora Koop. E.**

Honako hauen dokumentuekin / Con documentos de: / With documents of: **Ibon Aranberri, Usue Arrieta, Tom Burrows, Ainara Elgoibar, Dan Graham, Tom Johnson, Mary Kelly, Nader Koochaki, Mierle Laderman Ukeles, Darcy Lange, Ferrán Llagostera, Isidoro Valcárcel Medina, Vicente Vázquez, The Block.**

### AURKIBIDEA | ÍNDICE | INDEX

**Sarrera | Intro** (2 - 3) • Iraganeko bizitza batera joatea | Avanzar hacia una vida pasada | To go ahead for a former life - **Tractora Koop. E.** (4 - 9)  
• **Erakusketako plano eta aretoko testuak | Plano de la exposición y textos de sala | Exhibition floormap and guide texts** (10 - 15) •  
Irudia sortzearen ardurak | Las responsabilidades de la creación de imágenes | The Responsibilities of Image Making - **Darcy Lange** (16 - 18)  
• Darcy Lange, lana eta musika | Darcy Lange, trabajo y música | Darcy Lange, Work and Music - **Dan Graham** (19 - 22) • **Irudiak, Darcy Langeren liburutegia | Imágenes. Biblioteca de Darcy Lange | Pictures. Darcy Lange's library** (23 - 27) • **Programa Publikoa | Programa público | Public programme** (28 - 30) • **Kredituak | Créditos | Credits** (31)

## Sarrera

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* izena du 2017an Tabakaleran egindako bi komisariotza egonaldietan sortutako eta 2018. urtean garatutako proiektuak.

Proiektua gure eskuetara iritsi zenean, hiru alderdi hauek baloratu genituen gehien, epaimahaiarekin batera, proiektua hautatzeko: euskal testuinguruko artista kolektibo batek Londresen finkatutako komisario batekin lan egitea proposatzen zuen, artista baten lana aztertzeko. Artista hori ez zen bereziki ezaguna, baina haren lanak aitortza merezi zuen, izandako ikuspegiagatik eta haren lanak beste artista batzuegan izandako eraginagatik.

Bat. Kooperatiba. Tractora Koop. E. Askotariko diziplinako hainbat artista elkartu egin ziren eta Bizkaian kokatuta dagoen kooperatiba bat sortu zuten, elkarlanean aritzeko eta euren proiektuak nahiz beste artista batzuek zuzendutakoak aurrera ateratzeko. Artista horien banakako lana ezagutzen genuen, eta proposatu ziguten formulazioa interesgarria iruditu zitzaigun: artistaren figura beste artista baten lanaren ikerlari lanetan.

Bi. Komisarioa. Mercedes Vicente. Tractora kooperatibak proposatzen zuen ikerlan hori Londresen bizi den Kataluniako komisarioarekin elkarlanean egitea; izan ere, komisarioak Royal College of Art eskolan egindako doktoretzaren gaia bideo artearen aitzindari izan zen Darcy Lange zeelandaberritarren lana zen. Mercedesek pertsonalki ezagutzen zuen Darcy Lange.

Hiru. Eta, noski, Darcy Lange artista. Auckland eta Londresen eskultore prestakuntza jaso ondoren, Lange «lan estudio» izendatu zituenak grabatzen hasi zen 1972an. Lan horietan, bideoan jasotzen zituen askotariko esparruetan lan egiten zuten pertsonak, denbora luzez, hala nola fabriketan, landa eremuan, eskoletan, artisten estudioetan, etxeetan eta abarretan, Zeelanda Berriatik hasi eta Erresuma Batua edo Espainiaraino.

Joan den urteko bi egonaldietan, Tractora kooperatibak Mercedes Vicenteren laguntza izan zuen Darcy Langeren bideoak sakon ikusteko eta bideo horietan nabigatzeko. Uda honetan bertan, Darcy Lange Estate eta Govett-Brewster Art Gallery (Zeelanda Berria) erakundeen eskuzabaltasunari esker Tabakalerara ekarritako artistaren artxibo pertsonala erabiliz, Tractora kooperatibak artistaren gutunak aztertu ditu, eta Langeren eta beste artista batzuen arteko lotura preziatuak aurkitu ditu, baita ingurumenarekiko artistaren harremana deskubritu ere; hori oso lagungarria izan da artistaren lanen formalizazio artistikoaren ikuspegi aitzindari ulertzeko.

## Intro

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* es un proyecto que se ha desarrollado bajo el paraguas de la residencia de comisariado de Tabakalera, durante dos estancias en 2017 y su posterior desarrollo a lo largo de 2018.

Cuando el proyecto llegó a nuestras manos hubo tres aspectos que valoramos especialmente a la hora de seleccionarlo junto al jurado: un colectivo de artistas del contexto vasco proponían trabajar con una comisaria afincada en Londres para investigar en torno al trabajo de un artista poco conocido pero cuyo trabajo merecía un reconocimiento por su visión y la influencia que había ejercido sobre otros artistas.

Uno. La cooperativa. Tractora Koop. E. Un grupo de artistas de diferentes prácticas afincados en Bizkaia se habían constituido en cooperativa para sumar y producir proyectos propios o liderados por otros artistas. Conocíamos la práctica individual de cada uno de ellos y encontramos la formulación que presentaban interesante: la figura del artista como investigador del trabajo de otro artista.

Dos. La comisaria. Mercedes Vicente. Tractora proponía una investigación en colaboración con la comisaria catalana afincada en Londres, cuyo doctorado, realizado en el Royal College of Art, versaba sobre la obra del artista neozelandés pionero del vídeo arte Darcy Lange, a quien Mercedes conoció personalmente.

Tres. Y, por supuesto, el artista, Darcy Lange. Formado como escultor en Auckland y Londres, Lange comenzó a grabar lo que denominó «estudios de trabajo» en 1972: observaciones duracionales de vídeo de personas que trabajan en diferentes entornos como la fábrica, el ámbito rural, la escuela, estudios de artistas o lo doméstico, y geografías, desde Nueva Zelanda al Reino Unido y España.

Durante los dos periodos de estancia desarrollados el año pasado, Tractora se apoyó en Mercedes Vicente para navegar a través de los vídeos de Darcy Lange con visionados intensivos de su obra. Ya este verano, con el archivo personal del artista en Tabakalera gracias a la generosidad del Darcy Lange Estate y Govett-Brewster Art Gallery (Nueva Zelanda), Tractora ha indagado en las correspondencias, ha encontrado pequeños tesoros de vínculo entre Lange y otros artistas, o su relación con el medio ambiente, que han ayudado a comprender su visión pionera en la formalización artística de sus obras.

La visita casual de su hijo, Darcy Lange, a San Sebastián en agosto fue un momento importante para completar los relatos y conocer otro tipo de detalles de su vida tan vinculada a su obra.

Abuztuan, haren seme Darcy Lange Donostian izan zen, kasualitatez, eta hori funtsezkoa izan zen artistaren historia osatzeko eta bere lanari hain lotuta dagoen bizitzari buruzko xehetasun gehiago jasotzeko.

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* beste artista bat eta haren bizitza eta harreman testuinguruak ulertzeko artista talde batek egin duen dokumentazio ikerketa baten emaitza da. Erakusketa Darcy Langeren bizitza eta lana zeharkatzen dituen artikulazio bat da, eta hainbat jarduera ere egingo dira.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Tabakalerako kultur zuzendaria

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* es el resultado de la investigación de un grupo de artistas que trabajan en la documentación para comprender a otro artista y sus contextos vitales y relacionales. La exposición es una articulación que atraviesa la vida y el trabajo de Darcy Lange y estará acompañada de una serie de actividades.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Directora cultural de Tabakalera

## Intro

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* is a project developed under the umbrella of Tabakalera's curatorship residency, during two stays in 2017 and its subsequent development throughout 2018.

When the project came to our hands there were three aspects that we particularly valued when selecting it with the jury: a collective of artists from the Basque context proposed working with a curator based in London to carry out research into the work of a little-known artist whose work deserved recognition due to his vision and influence on other artists.

One. The cooperative. Tractora Koop. E. A group of artists from different fields based in Biscay had formed a cooperative to combine and produce projects of their own or those led by other artists. We were familiar with the individual work of each one of them and found their proposal interesting: the figure of the artist as a researcher of the work by another artist.

Two. The curator. Mercedes Vicente. Tractora proposed research in collaboration with the London-based Catalan curator, whose PhD, carried out at the Royal College of Art, focused on the work of the New Zealander artist who is a pioneer in video art, Darcy Lange, who Mercedes knew personally.

Three. And of course the artist, Darcy Lange. Trained as a sculptor in Auckland and London, Lange started to record what he called «work studies» in 1972: durational video observations of people working in different environments such as factories, rural settings, schools, artist studios or domestic spaces, and geographical locations, from New Zealand to the United Kingdom and Spain.

During the two stays carried out last year, Tractora was supported by Mercedes Vicente to navigate through the videos by Darcy Lange with intensive viewings of his work. This last summer, with the personal archive of the artist in Tabakalera thanks to the generosity of the Darcy Lange Estate and Govett-Brewster Art Gallery (New Zealand), Tractora has explored the connections and has found small treasures, links between Lange and other artists, or his relationship with the environment, which have helped to understand his pioneering vision in the artistic formalisation of his work.

The chance visit by his son, Darcy Lange, to San Sebastian in August was an important moment to complete the account and learn about other details of his life that are so closely linked to his life.

*Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange* is the result of the research carried out by a group of artists who work through documentation to understand another artist and the context of his life and relationships. The exhibition is an exploration of the life and work of Darcy Lange and will be accompanied by a series of activities.

**Ane Rodríguez Armendariz**  
Tabakalera's Cultural Director

## AURREKO BIZITZA BATERA JOATEA

Tractora Koop. E.

*Te voy pintando y pintando  
al ladito del brasero  
Y a la vez me voy quemando  
Por lo mucho que te quiero*

Quintero, León eta Quiroga, 1942

*Avalanche* aldizkarirako egin zioten elkarrizketa batean, Darcy Langek (Zeelanda Berria/Aotearoa, 1946-2005) giza jarduerak erregistratzeko tresna gisa bideoak duen berariazkotasunari buruz eta bideoak memoriaren euskarri sentikorra izateko duen potentzialari buruz hitz egin zuen. Momentu batean, elkarrizketatzaileak bere lana egiteko arrazoiagatik galdetu zion Langeri; jakin nahi zuen zein asmo zegoen lan egiteko moduak eta azkenean desagertu egingo diren bizimoduak sistematikoki erregistratzeko jarduera suhar haren atzean. Langek erantzun eder eta aztoragarri bat eman zion galdera zahar honi, eta oso zaila litzateke erantzun horren zentzua modu argi batean zehaztea. Aurreko bizitza baterantz zihoala uste zuela erantzun zion («to go ahead to a former life»<sup>1</sup>), eta azpimarratu zuen jakin bazekiela aurrerapausoak ematen ari zela, aurrerantz zihoala, Benjaminen Angel Novus-aren antzera, iragenerantz<sup>2</sup>.

Abesti zaharrak beti datoz bueltan gorputz berrietan ederrak eta kezagarriak direnean, zentzu unitarioa zalantzan jartzen dutenean. Hala, abesti zaharrek are gai zaharragoak lantzen dituzte, eta gai horiek behin eta berriz azaleratzen dira antena gisa funtzionatzen dutenen eskutik, baldintza egokiak edo urgentzia premiazkoa denean jasotako seinalea transmititzea onartzen dutelako.

Azken hiru hilabeteetan, jo eta ke *Landa lan* prestatzen ari ginela, Sortzaileen Guneko 3. estudioan lehenik, Miscélanea espazioan gero, eta desagertu berri den 1. erakusketa-gelan —etorkizunean ikus-entzunezko formatu berrien laborategia izango dena, eta, hasiera batean, *Landa lan* proiektuaren formalizazio-gunea izan behar zuena— Youtubeko musika entzuten genuen batzuetan gure ordenagailu eramangarrien bitartez. Webgune horren algoritmoak, patuaren eskuetan jarrita, sarritan berbideratzen gintuen Rosalíaren bideoetara. Rosalía Kataluniako abeslari gazte bat da, eta forma flamenkoa adierazpen eratzat hartuta, komunikabideak astintzen ari da egunotan, eta, horrenbestez, baita gure gorputzak ere; azken finean, bere erresonantzia-kutxaririk eraginkorrenak baikara. Komunikabideetan izan duen arrakastaren hazkundea paraleloan joan da gu erakunde honetan era boluntarioan progre-

<sup>1</sup> Sharp, Willoughby, (Verano 1975). *Darcy Lange Videography: Work*. *Avalanche*, 11, 12-13.

<sup>2</sup> Dan Grahamek Walter Benjaminen aipu bat gehitu zuen *Darcy Lange: Work and Music* lanaren sarreran, Darcy Langeren *Video Art*-en.

## AVANZAR HACIA UNA VIDA ANTERIOR

Tractora Koop. E.

*Te voy pintando y pintando  
al ladito del brasero  
Y a la vez me voy quemando  
Por lo mucho que te quiero*

Quintero, León y Quiroga, 1942

En una entrevista que le hicieron para la revista *Avalanche*, Darcy Lange (Nueva Zelanda/Aotearoa 1946-2005) habla sobre la especificidad del vídeo como herramienta para el registro de la actividad humana y del potencial que el vídeo ostenta como soporte sensible de la memoria. En un momento el entrevistador pregunta a Lange sobre el por qué de su trabajo, la intención que hay detrás de esa ferviente actividad por generar un registro sistemático de las maneras de trabajar, de capturar formas de vida que terminarán por extinguirse. Lange responde a esa vieja pregunta con una respuesta bella e inquietante, cuyo sentido es difícilmente encapsulable. Responde que cree que está avanzando hacia una vida pasada («to go ahead to a former life»<sup>1</sup>) y subraya que está seguro de que, efectivamente, lo que sin duda está haciendo es ir hacia adelante, avanzar, como el Ángel Novus de Benjamin, hacia el pasado<sup>2</sup>.

Las viejas canciones, cuando son bellas e inquietantes, cuando interrogan el sentido unitario, vuelven siempre en nuevos cuerpos. Así, también las viejas canciones portan temas aún más viejos, que emergen una y otra vez, de la mano de aquellos, que, como antena, aceptan transmitir la señal recibida cuando las condiciones son propicias o la urgencia apremiante.

Durante los últimos tres meses, mientras trabajábamos intensamente en la preparación de *Landa lan* en el Estudio 3 de Sortzaileen Gunea primero, en el espacio Miscelánea después y por último en la ya extinta sala de exposiciones 1 —futuro laboratorio de nuevos formatos audiovisuales donde, en origen, debería haberse formalizado *Landa lan*— escuchábamos a veces música en Youtube desde nuestros ordenadores portátiles. El algoritmo de esta plataforma web, abandonado a su suerte, nos redirigía a menudo a vídeos de Rosalía. Rosalía es una joven cantante catalana que, habiendo adoptado la forma flamenca como modo de expresión, está convulsionando los medios estos días y, por tanto, todos nuestros cuerpos que son, al fin y al cabo, su caja de resonancia más efectiva. Su ascenso a los medios ha corrido en paralelo a nuestro progresivo encierro voluntario en esta institución, por lo que no es extraño que ahora que debemos recapitular nuestra experiencia de trabajo

<sup>1</sup> Sharp, Willoughby, (Verano 1975). *Darcy Lange Videography: Work*. *Avalanche*, 11, 12-13.

<sup>2</sup> Dan Graham cita a Walter Benjamin el en texto introductorio a *Darcy Lange: Work and Music* en *Video Art*, de Darcy Lange.

siboki ixtearekin, eta, beraz, ez da harrigarria orain gure lan-esperientzia «Orriak» honetan laburbildu behar dugunean, Rosalíaren abestia bertan sartzea, batez ere oroimenaren gainontzeko atalei nola txirikordatuta dagoen ikusita.

Cadena Ser irratiak erregistratutako zuzeneko irratsaio batean, Rosalíak testu honen goiburuan dauden Quinterok, Leónek eta Quirogak 1942an idatzitako lerroak abestu zituen. Rosalíaren abestia erreferenteen nahasketa bat ere bada, abeslariak beren jatorriko testuinguruetatik obra berri bat ehuntzeko erauzi dituen abesti zaharren zati txikiak. «Te voy pintando y pintando, al ladito del brasero» dio mintzagai dugun letrak. «Si tú supieras compañero» (2017) da bere obra berriaren titulua. Darcy Langeren artxibo pertsonala osatzen duten funts dokumentalak, gutunak, postalak, eskuz idatzitako proiektuak, bisa-eskaerak, aurrekontuak eta argazki-errebelatuen ordainagiriak aztertzen genituen bitartean, aire girotuz betetako gela hartako atzealdean abestia entzuten zelarik, ziarra diezazuekegu denok altxatu genuela begirada momenturen batean eta geure buruei esan: «si tu supieras compañero, como te voy pintando y pintando, al ladito del brasero.»

Julio Romero de Torresen biografiaren pasarte batean inspiratuta dago Rosalíak berreskuratutako zati horren jatorrizko abestia; zehazki, 1930ean, zendu baino apur bat lehenago, *La chiquita Piconera* koadroa margotu zuen garaikoa da. *La chiquita piconera* koadroak (1930) eta abestiak (1942) izen bera dute. Concha Piquerrek jendarteratu zuen koplaren autore Quinterok, Leónek eta Quirogak Romero de Torres margolaria María Teresa Lópezen erretratua egitera eraman zuen prozesua deskribatzen dute, horretarako beren ogibideari dagozkion tresnak erabiliz (notazio musikala eta testua). María Teresa Lópezek margolariaren hainbat koadroetarako modelo lanak egin zituen, eta esaten dutenez, margolaria guztiz maitemindu zen berarekin.

Leónek, Quintanak eta Quirogak Romero de Torresen erretratua egiten dute; bere lan-prozesua «margotu eta margotu» egiten dute beren melodia eta letren bitartez. Abestiak artista bere obra lortzeko lanean zebilen bitartean deskribatzen du, eta, hortaz, artista ogibidearen erregistro sentikorra da. Abestiak artistaren lan egiteko era dokumentatu, aztertu eta erregistratu egiten du. Abestian margolariak pintatzen duen koadro hori, aldi berean, neskata baten, ikazkin baten erretratua da, bere belaunen gainean makurtuta dagoela, koadroa behatzen duen pertsona orori adi-adi begiratzen diona. Pikoia ikatz fin mota bat da, arte, txara edo pinu adarretatik egiten dena. Sutontzietan edo material hori erretzeko edukiontzi txikietan erabiltzen zen, horrela etxea berotzeko. *Piconera* zeritzon (gaztelaniaz), hortaz, pikoia ekoiztu edo saltzen zuten emakumeen ogibideari. Sutontziak oinen ondoan, mahaiko mantel azpian edo gela itxietan jarri ohi ziren neguan gorputzak eta giroa berotzeko. Emakume horien lana, gaur egun existitzen

para plasmarla sobre estos papeles (Orriak), la canción de Rosalía también se cuele en ella, trenzada comó está con el resto en la memoria.

En un directo registrado por la Cadena Ser, Rosalía canta los versos de Quintero, León y Quiroga de 1942 que encabezan este texto. La canción de Rosalía es también una trenza de referentes, pequeñas secciones de diversas canciones antiguas que la cantante arrebatada de su contexto original para tejer en una nueva obra. «Te voy pintando y pintando, al ladito del brasero» dice el fragmento de la letra que nos ocupa. «Si tú supieras compañero» (2017) reza el título de su nueva obra. Mientras estudiábamos los fondos documentales, cartas, postales, proyectos manuscritos, peticiones de visados, presupuestos y recibos de revelados fotográficos que componen el archivo personal de Darcy Lange y la canción sonaba en la habitación cargada de aire acondicionado, os aseguramos que todos hemos levantado la vista un instante alguna vez y dicho para nuestros adentros: «si tú supieras compañero, como te voy pintando y pintando, al ladito del brasero.»

La canción original de la que Rosalía ha rescatado este fragmento se inspira en un pasaje biográfico del Julio Romero de Torres; de la época en la que el el artista, en 1930, poco antes de morir, pintó el célebre cuadro *La chiquita Piconera*. *La chiquita piconera*, cuadro (1930) y canción (1942), comparten nombre. Quintero, León y Quiroga, autores de esta copla que popularizó Concha Piquer, describen, haciendo uso de las herramientas propias de su oficio (la notación musical y el texto) el proceso que llevó a Romero Torres a retratar a María Teresa López, que trabajó de modelo para este y otros cuadros del pintor y de la que se dice, quedó prendado irremediamente.

León, Quintero y Quiroga retratan a Romero de Torres, cuyo proceso de trabajo van «pintando y pintando» a través de sus melodías y sus letras. La canción describe al artista mientras trabaja en la consecución de la obra y es, por tanto, un registro sensible del oficio del artista. La canción documental, estudia y registra esta forma de trabajo, el trabajo del artista. El cuadro que el pintor de la canción está realizando es, a su vez, el retrato de una muchacha, una piconera que, inclinada sobre sus rodillas, mira fijamente al que lo observe. El picón es un tipo de carbón fino, hecho a partir de ramas de encina, jara o pino que se empleaba en los braseros, pequeños recipientes donde se quemaba para calentar la casa. El de piconera era el oficio de las que fabricaban o vendían picón. Los braseros se colocaban junto a los pies, bajo el mantel de la mesa o en habitaciones cerradas, para calentar los cuerpos y caldear el ambiente durante el invierno. El trabajo de piconera, ya extinto, consistía en recoger y quemar el forraje de los bosques para fabricar el picón, y llevarlo luego a vender por los pueblos y ciudades, ya en forma de combustible

ez dena, basoetako bazka jasotzean eta erretzean zetzan, pikoia sortzeko. Gero, herri eta hirietara eramaten zuten bertan saltzeko, energia lortzeko erregai fosil forman bilakaturik. Horrenbestez, koadroak eta abestiak ez dute soilik titulu bera partekatzen, *La chiquita piconera*, beste zerbait ere partekatzen dute: biak dira ogibide baten errepresentazio; ikazkina-rena bata eta margolariarena bestea.

Zaila ematen du lana bera irudikatzea lan egiteko ekintzari arretarik jarri gabe; izan ere, esan nahi dena adierazpen-prozesuko ispilu argi eta gupidagabe batean dago. Artean lanari buruz idaztea kimera bat da. Norberak ezin du eskuei buelta eman eta duela momentu bat ordenagailu eramangarriko tekla beltzak sakatzen ari zirenen atzamarrei arretaz so egitea saihestu. Atzamar hauek digitatu berri dituzten "t"-ak, "e"-ak eta "n"-ak irudikatzen duten silueta "s" malgu honen atzean geratzen doa, eta so gelditzen gara "a" honi jarraituko beharko dion bikoitia den puntuari. Lanera bueltatu eta idatzi aurretik gure memorian gordetzen dugun puntu bikoitz horren soinua, horrela jarrita, bata bestearen atzeko soinua eta letretan; lana eten izanaren ziurtasun gabezia kezkarria, baina lanari berriro ekin behar diodala jakitea; lengoia ororen tresnek zentzuari huts egiten diotelako intuizioa, eta une batez dena irekia dela eta dauden harremanak antzeman, landu baino ez direla egin behar; lan kontua baino ez da, lan egitearena. Hori da, hain zuzen, Darcy Langeren obrak jarraitzen duen ildo. Hori da guk, Tractorak, proiektu honi dedikatutako urte luzean bizi izan dugun prozesu hunkigarria.

Artista guztiek egoera horri egunero aurre egin behar diotela esango bagenu, ez dut uste gezurretan ibiliko ginatkeenik. Errepresentazioa (edo bere kritika, ez dago ezberdintasunik kasu honetan), beste edozein giza jarduera bezalaxe, trebatu egiten da; beharrezkoak dira lana, teknika, errepikapena eta ogibidea. Neketsua da behatzea, ikertzea, dokumentatzea, idaztea, plasmatea, adieraztea, deseraikitzea, aztertzea, analizatzea, artikulatzea, transferitzea edo formalizatzea. Gainera, abiapuntutzat «lanak lan gisa, okupazio gisa, jarduera gisa eta denboraren kontsumo gisa duen irudia sortzen»<sup>3</sup> zentratzen den obra bat hartzeak are nekezagoa egiten du, posible bada, ekuazioko elementuak bereiztea. Objektua eta subjektua, figura eta hondoa nahasten laguntzen du, forma lortzeko egin den indarrak edukiarekin bat egiten du. Beti huts egiten du lengoaiak kasu horietan, eta hori da behin eta berriro Darcy Langeren bizitza eta obra jasotzen dituen artxiboak erakusten duena.

Langek erregistroak egin zituen eskoletan, fabrike-tan, nekazaritza- eta baso-ustiaketetan eta zerbitzu-entresetan. Horrez gain, etxeko lanak eta errepi-deen eraikuntzak ere grabatu zituen. Etengabekoa, sistematikoa eta integratzailea izan zen eremu horretan egin zuen lana, eta gorpuztu egin zituen sortu ditugun eta formateatzen gaituzten sistemen

fósil del que extraer energía. Por tanto, cuadro y canción no comparten tan sólo el nombre, *La chiquita piconera*, sino que ambos son un ejercicio de representación del trabajo, el de piconera el uno, el de pintor la otra.

Parece difícil representar el trabajo sin atender al acto mismo de trabajar dicha representación, pues lo que quiere decirse encuentra un espejo claro e implacable en el proceso de enunciación en sí. Escribir sobre trabajo en arte es una quimera. Una no puede evitar voltear las manos y mirar con atención los dedos que hasta hace un momento presionaban las negras teclas del ordenador portátil. La silueta que dibujan la jota, la «a» y la «n» recién digitadas por esos dedos, van quedando atrás de esta última «m», y esta «y» a la que seguirá este punto. El sonido de este punto doble, así dispuesto en signos y letras contiguas, que guardamos en nuestra memoria antes de volver al trabajo y escribir; esa sensación inquietante de no estar segura de haber parado el trabajo siquiera, y aún así comprender que debo volver para reanudarlo; esa intuición de que las herramientas de todo lenguaje fallan al sentido y que por un momento todo es abierto y guarda una relación rastreable que está ahí, y solo es cuestión de trabajarla; cuestión de trabajo, de trabajar, ese es el derrotero por el que transita la obra de Darcy Lange. Este es también el inquietante proceso en el que nosotras, Tractora, nos hemos visto envueltas durante el año largo que hemos dedicado al proyecto.

Creo que no mentiríamos si dijéramos que todo artista enfrenta este hecho a diario. La representación (o su crítica, no hay diferencia aquí), como cualquier otra actividad humana, se ejercita; conlleva un trabajo, una técnica, una repetición, un oficio. Observar, estudiar, documentar, escribir, plasmar, expresar, deconstruir, estudiar, analizar, articular, transferir, criticar o formalizar es algo laborioso. Tomar como punto de partida una obra cuyo foco es «concebir la imagen del trabajo como trabajo, como ocupación, como actividad y como consumo de tiempo»<sup>3</sup> hace más difícil, si cabe, separar los elementos de la ecuación. Contribuye a confundir objeto y sujeto, figura y fondo, hace converger el contenido con la fuerza que se ha ejercido para crear la forma. El lenguaje falla siempre en estos casos y de esa insuficiencia da cuenta, una y otra vez, el archivo de vida y obra de Darcy Lange.

Lange realizó registros en escuelas, fábricas, explotaciones agrícolas y forestales y empresas de servicios. Realizó también grabaciones del trabajo doméstico y la construcción de carreteras. Su actividad en este campo fue continua, sistemática e integradora, encarnando las contradicciones de los sistemas que hemos inventando y que nos forman. Lange también fue un escultor neozelandés que adoptó el video y la guitarra flamenca como formas de expresión, como formas de trabajo. En

<sup>3</sup>DLA/000035

<sup>3</sup>DLA/000035

kontraesanak. Lange bideoa eta gitarra flamenkoa adierazpen- eta lan-eratzat hartu zituen eskultore zeelandaberritarra izan zen. Egun bizi dugun momentuaren pareko batean, zeinetan zalantzan jartzen den lan duin bat izateko aukera, zeinetan baldintzen gogortasuna artearen eremuko lanak desbabesteko argumentu den, zeinetan lana etengabea den arren ordainsaria eskasa den, zeinetan sorkuntza hau bezalako fabriketan gauzatzen den, Langeren obraren parekoak, lan egiteko egintzaren inguruko ariketa entziklopedikoak edo zerbaitetan buru-belarri ibiltzekoarenak, inoiz baino garrantzitsuagoak eta ederragoak dira orain, posible bada, desagertzear daudenean duten distirarekin.

*La chiquita piconera* abestiaren lehen grabazioa hemendik metro gutxira dagoen fabrika batean egin zen, Donostiako Antigua auzoko Columbia izeneko disko-lantegian, 1942an, hain zuzen, Estrellita Castroren eskutik. Donostiako Columbian bini-lozko diskoak egiteaz gain, euskarazko lehen erre-gistroetako batzuk argitaratu eta zabaldu ziren. 1932rako 100 langile baino gehiago zituen jada disko-lantegiak. Bertan argitaratu ziren Donostiako Orfeoiaren edo danborradaren lehen erregistroak, baita gaur *Haurtxoa Sehaskan* izenarekin ezagutzen dugun *LO, LO, LO* Gabriel Odriozolaren abestia ere. Era berean, fabrika horretan egin ziren 1931 eta 1933 artean ekoizitako *Archivo histórico del habla* edo hizkeraren artxibo historikoa eta Musika Eskola Zirkulatzaileko gramofonoak. Proiektu pedagogiko horrek esperimentuak egin zituen alde zurretik grabatutako musika ikasgeletan erabiltzearekin. Hitzek sarritan lantzen dute beren zentzua, oso ohikoa da, baina ez dugu ahaztu behar beren soinua ere lantzen dutela: lan da lan, ene potxolo, egin aguro lo, lo, lo.

un momento como el actual, en el que la posibilidad de tener un trabajo digno para todos se pone en duda, en el que la dureza de las condiciones sirve de argumento para desproteger el trabajo en arte, en el que la labor es constante pero la remuneración escasa, en el que la creación se lleva a cabo en fábricas como ésta, una obra como la de Lange, un ejercicio enciclopédico sobre el acto de trabajar, de ocuparse en algo laboriosamente, es más importante que nunca, y más bella si cabe, en su brillo de extinción.

La primera grabación de *La chiquita piconera* se realizó a pocos metros de aquí en una fábrica cercana a ésta, *La fábrica de discos Columbia de San Sebastián*, en el barrio del Antiguo, en 1942. El trabajo corrió a cargo de Estrellita Castro. En la Columbia de Donostia, que para 1932 tenía en plantilla a más de 100 trabajadores, además de fabricarse vinilos y gramófonos se publicaron y distribuyeron algunos de los primeros registros musicales en euskera. El primer registro del Orfeón Donostiarra o de la tamborrada se publicaron allí; también la canción de cuna *LO, LO, LO*, de Gabriel Olaizola que hoy conocemos como *Haurtxoa Sehaskan*. De esa fábrica salieron también entre 1931 y 1933 los vinilos del *Archivo histórico del habla* y los vinilos y gramófonos para la Escuela Musical Circulante, proyecto pedagógico que experimentó con la utilización de la música pregrabada en las aulas. Las palabras trabajan a menudo con su sentido, rutinariamente, pero no debemos olvidar que lo hacen también con su sonido; *lan da lan, ene potxolo, egin aguro lo, lo, lo*.

## TO GO AHEAD FOR A FORMER LIFE

Tractora Koop. E.

*Te voy pintando y pintando  
al ladito del brasero  
Y a la vez me voy quemando  
Por lo mucho que te quiero*

Quintero, León and Quiroga, 1942

In an interview for *Avalanche* magazine, Darcy Lange (New Zealand/Aotearoa 1946-2005) talks about the specificity of video as a tool to record human activity and the potential that video holds as a sensitive support for memory. At one point, the interviewer asks Lange why he works as he does, what are the intentions behind such fervent activity to produce a systematic record of ways of working, capturing ways of life that are bound for extinction. Lange responds to this old question with a beautiful and unsettling response, whose meaning is difficult to encapsulate. He responds that he believes what he does is “to go ahead to a former life”<sup>1</sup>, and emphasises that he is certain that what he is effectively doing is undoubtedly to move forward, to advance, like Benjamin’s *Angelus Novus*, towards the past<sup>2</sup>.

Old songs, when they are beautiful and unsettling, when they question unitarian sense always return in new bodies. Likewise, old songs carry even older themes that emerge over and over again, hand in hand with those who, as if they were antennae, accept to transmit the signal they received when the conditions are favorable or the urgency is pressing.

Over the course of the last three months, while we were intensely working to prepare *Landa lan*, first in the Studio 3 of the Artist Space, later on in the Miscelanea Space and finally in the now extinct Exhibition Hall 1—future laboratory of new audiovisual formats where, originally, *Landa lan* should have been formalised—we sometimes used our laptop computers to listen to music on YouTube. Giving in to the power of this web platform’s algorithm, we were often redirected to Rosalía’s videos. Rosalía is a young Catalan singer that, having adopted flamenco as a form of expression, is disrupting the media these days and, therefore, all of our bodies which are, bottom line, its most effective sounding

<sup>1</sup> Sharp, Willoughby, (Summer 1975). *Darcy Lange Videography: Work*. *Avalanche*, 11, 12-13.

<sup>2</sup> Dan Graham cites Walter Benjamin in the introduction to *Darcy Lange: Work and Music in Video Art*, by Darcy Lange.

board. Her ascent in the media has run in parallel to our progressive voluntary confinement in this institution, so it is not at all strange that we now, at the moment we are to sum up our working experience in order to inscribe it on these papers (Orriak), Rosalía's song slips into it, woven as it is with the rest in our memory.

In a live performance recorded by Cadena Ser, Rosalía sings the verses from the 1942 song by Quintero, León, and Quiroga that head this text. Rosalía's song is also a braid of references, small sections of various old songs that the singer grabs from their original context in order to be woven into a new piece. "Te voy pintando y pintando, al ladito del brasero" says the song that we will discuss. "Si tu supieras compañero" (2017) reads the title of her new song. While we were studying the documents, letters, post cards, manuscript projects, visa requests, proposals, and receipts for photo prints that make up Darcy Lange's personal archive, the song played in the room charged with air-conditioning, and we can assure you that we all raised our sight for a moment sometime and said to ourselves: that we all raised our gaze, at one time or another, and thought to ourselves for a moment: 'si tu supieras compañero, como te voy pintando y pintando, al ladito del brasero' if only you knew, my friend, how I go on painting and painting you, next to the brazier.

The original song from which Rosalía recovered this fragment is inspired by a biographical passage from Julio Romero de Torres; from the time in which the artist, in 1930, shortly before his death, produced his the famous painting *La chiquita Piconera*. *La chiquita piconera*, painting (1930) and song (1942) share their name. Quintero, León and Quiroga, the authors of this folk song, which was popularised by Concha Piquer, use the tools of their craft (text and musical notation) to describe the process that led Romero Torres to paint María Teresa López, who modelled for the painter for this as well as other paintings, and with whom, it is said, he fell utterly in love.

León, Quintero and Quiroga portray Romero de Torres, whose work process they go on "painting and painting" with their lyrics and melodies. The song describes the artist while he works to complete the painting, and therefore serves as a clear record of the artist's craft. The song documents, studies, and records this type of work; the work of an artist. The painting that the artist in the song is making is, at the same time, a portrait of a young girl, a 'piconera' that stares at the observer back at the observer while bent down on her knees. 'Picón' is a type of fine coal made from oak, rockrose, or pine branches used in braziers, which are small recipients where the coal was burned to warm the house. A 'Piconera' was that whose profession was to produce or sell "picón" manufactured or sold 'picón'. Braziers were placed next to the feet, under the tablecloth, or in closed-off environments to heat bodies and warm up rooms in winter. The now extinct work of a 'piconera' was to collect and burn collecting and burning forage from forests to produce 'picón', which she would later sell in towns and cities as a fossil fuel from which energy could be extracted. So, the painting and the song *La chiquita piconera* don't just share a name, they are both also an exercise of representation of work; that of a "piconera" in the case of the painting, and that of a painter in the case of the song.

It seems difficult to represent work without addressing the act of working through such representation, because that aims to be said finds a clear and implacable mirror in its own enunciation process. Writing about work in art is a chimera. One can't avoid turning over one's hands and staring at one's fingers that, until a moment ago, were pressing the black keys of a laptop computer. The silhouette created by the "t", the "h", and the "e" that were just digitalised by those fingers are left behind this last "l", then another "r" that will be followed by this period. The sound of the double point, so arranged in adjacent symbols and letters, that we save in our memory before returning to the task and writing; this unsettling feeling of not being sure of having even ceased to work, and even then, to understand that I must go back and resume it once more; the intuition that the tools of all languages fail the meaning and that, for a moment, everything is open and holds a traceable relationship which is there, and that it is simply a question of working it out; a question of work, of working, that is the direction Darcy Lange's work moves on. This is also the unsettling process in which we, Tractora, have seen ourselves involved over the course of the long year that we have dedicated to the project.


I believe that we would not be lying to ourselves if we said that all artists face this fact on a daily basis. Representation (or its critique, as there is no difference here), like any other human activity, is exercised; it entails work, technique, repetition, and craft. Observing, studying, documenting, writing, capturing, expressing, deconstructing, studying, analysing, articulating, conveying, criticising, or formalising is a laborious task. Takins as a starting point a piece of art whose focus is to "conceive the image of work as work, as an occupation, as an activity, and as time consumer"<sup>3</sup> makes it even more difficult to separate the elements within the equation. It contributes to confusing object and subject figure and background, making the content converge with the force that has been exercised to create the form. Language always fails in these cases, and this insufficiency is continuously emerges in Darcy Lange's work and life archive.

Lange created records in schools, factories, farms, forestry exploitations, and service companies. He also recorded recordings of domestic work and road construction. His activity in this field was continuous, systematic, and unifying, embodying the contradictions of the systems that we have invented, those same systems that format us. Lange was also a New Zealand sculptor that adopted video and flamenco guitar as forms of expression, as forms of work. At a time like the present, in which the possibility of dignified work for all has been placed in jeopardy, in which difficult conditions serve as an argument for stripping work in art off its protections, in which labour is constant but wage is scarce, in which creation is carried out in factories like this one, an oeuvre such as Lange's, an encyclopaedic exercise on the act of working, of occupying one's self with something laboriously, is more important than ever, and even more beautiful, in in its shine of extinction.

*La chiquita piconera* was first recorded in 1942 a few metres from here in a factory near this one, *La fábrica de discos Columbia de San Sebastián*, in the neighborhood of Antiguu. The work was carried out by Estrellita Castro. Donostia's Columbia, which had more than 100 workers in 1932, in addition to manufacturing vinyl records and gramophones, published and distributed some of the first musical recordings in the Basque language. The first recordings of the Orfeón Donostiarra or the Tamborrada were published there, as well as the lullaby *LO, LO, LO* by Gabriel Olaizola, which we now know as *Haurtxoa Sehaskan*. This same factory produced also between 1931 and 1933 the vinyl records of the Historical Archive of Speech, as well as the vinyl records and the gramophones for the Circulating Musical School, which was a pedagogic project that experimented with the use of pre-recorded music in the classroom. Words often work with their sense, but we shouldn't forget that they also work with their *sound*; *lan da lan, ene potxolo, egin aguro lo, lo, lo* (keep working my dear and then fastly get asleep).



FILM 3.



DLA/000267  
Large Black Artist Album with Information of Family Studies 1972;

# LANDA LAN A DOCUMENTATION OF DARCY LANGE



---

## Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange.

Tractora Koop. E.-k egindako proiektua. Honako hauen dokumentuekin: Darcy Lange, Tom Burrows, The Block, Dan Graham, Mierle Laderman Ukeles, Isidoro Valcárcel Medina, Ibon Aranberri, Tom Johnson, Mary Kelly, Usue Arrieta, Vicente Vázquez, Ainara Elgoibar, Nader Koochaki eta Ferrán Llagostera.

### 1.

Darcy Langek *work studies* edo «lan-estudioak» izena eman zien bere lanei. *Work studies* horiek lanean dabilzan pertsonen bideo-behaketa luzeak dira. Langek *work* hitza erabili zuen eta ez *labour*, azken hori lotuago dagoelako jardueraren dimensio ekonomikoarekin eta konnotazio politiko gehiago dauzkalako. Aldiz, *work* hitzak konkretuagoa den zerbaiti egiten dio erreferentzia, zehazki, esfortzua erabilerari eta zerbait lortzeko egindako lanari. Era berean, jarduera osoaren minimo komuna den aldetik, *work* hitzak nolokotasun orokortzaile eta abstraktua hartzen du. Bestalde, estudioa zerbait ulertzeko edo ezagutzeko egiten den esfortzu gisa uler daiteke. Gainera, estudioak praktika artistikoan obra bat gauzatu aurretik egindako prestakuntza-lanari egiten dio erreferentzia.

Langek fabrika eta tailerretan, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiaketat, fabrika eta meatze handietan, eskolako eta etxeko inguruneetan, aisialdiko jardueretan, kirol-txapelketetan, emanaldi edo *performance*etan eta artisten, musikarien eta poeten tailerretan egin zituen aipatutako *work studies* horiek. Are gehiago, lan bakoitzari eman zion tituluak nor, zer jarduera egiten eta non grabatu zuen identifikatzen zuen. Langek behin baino gehiagotan azpimarratu zituen bideoak memoriaren euskarri sentikorra izateko dituen nolokotasunak. Horrez gain, bere obraren atzean entziklopedia bat sortzeko borondatea zegoela ere esan zuen.

### 2.

*A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK* (Calvertongo eta Pleasleyko –Nottingham, EB– meatze-komunitateetako dokumentazio bat) (1973) eta *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (Bradford-eko, Erresuma Batua, lan bizitzaren dokumentazio bat) (1974) goi-mailako *work studies* unitateak dira, Darcy Langek «dokumentazio» deitzen dituenak. Darcy Langek *cross-section* (euskaraz zeharkako atala) terminoa erabili zuen ikuspuntu mota horri erreferentzia egiteko. Ikuspuntu horrek estudioen arteko analisi konparatiboa ahalbidetzen zuen; meatzarien kasuan, eskualde bereko bi ustiaketa artekoa, eta Bradford-en kasuan, hiri bereko industria-jardueraren lau enpresa esanguratsuren artekoa.

## Landa Lan. A Documentation of Darcy Lange.

Un proyecto de Tractora Koop. E. con documentos de: Darcy Lange, Tom Burrows, The Block, Dan Graham, Mierle Laderman Ukeles, Isidoro Valcárcel Medina, Ibon Aranberri, Tom Johnson, Mary Kelly, Usue Arrieta, Vicente Vázquez, Ainara Elgoibar, Nader Koochaki y Ferrán Llagostera.

### 1.

Darcy Lange denominó a sus trabajos *work studies*, estudios de trabajo. Los *work studies* son largas observaciones en vídeo de personas trabajando. Lange utilizó la palabra *work*, y no *labour*, un término ligado a la dimensión económica de la actividad y políticamente más connotado. *Work*, en cambio, se refiere a algo más concreto, al uso del esfuerzo y la acción para conseguir algo. Al mismo tiempo, al ser *work* un mínimo común denominador de toda actividad, adquiere una cualidad generalizadora, abstracta. El estudio, por su parte, puede entenderse como el esfuerzo que se aplica a comprender o conocer algo. En la práctica artística se refiere además al trabajo preparatorio previo a la materialización final de una obra.

Lange produjo *work studies* en fábricas y talleres, explotaciones agrícolas y ganaderas, en grandes fábricas y minas, en entornos educativos y domésticos, actividades de ocio, competiciones deportivas, actuaciones o *performances* y talleres de artistas, músicos y poetas. Los títulos que daba a cada uno de ellos identificaban además a la persona, la actividad y el lugar donde se rodaron. Lange subrayó en más de una ocasión las propiedades del vídeo como soporte sensible para la memoria. Enunció también la existencia de una voluntad enciclopédica detrás de su obra.

### 2.

*A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK* (Una documentación de las comunidades mineras de Calverton y Pleasley, Nottingham, Reino Unido) (1973) y *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (Una documentación de la vida laboral de Bradford, Reino Unido) (1974) son agrupaciones de *work studies* en unidades de orden superior, a los que Darcy Lange llama «documentaciones». Darcy Lange utilizó la palabra *cross-section* (en español sección transversal) para referirse a este tipo de enfoque, que permitiría abordar un análisis comparativo entre agregados de estudios: en el caso de los mineros, dos explotaciones de una misma región, y en el caso de Bradford, cuatro empresas representativas de la actividad industrial en una misma ciudad.

*A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK* (Calvertongo eta Pleasleyko –Nottingham, EB– meatze-komunitateetako dokumentazio bat) (1973) lanaren foku meatzeetako bizitza komunitarioan jarrita dago; hau da, erauzte purua inguratzen duten jarduerak, lana eta aisialdi-, borroka- eta mantenu-jarduerak uztartzen ditu. Horiek guztiak gertutasunetik jorratzen ditu Langek, esperientziatik. Langek ordura arte meatzeetan egiten ari zen lanarekin jarraitu zuen *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (Bradford-eko, Erresuma Batua, lan bizi-tzaren dokumentazio bat) (1974) lanean; hala ere, bat-batean lanaren eskala handitzeak *work studies* bakoitza egiterakoan ikuspuntu sistematikoago bat hartzera derrigortu zuen, eta, beraz, baita lan guztiak artikulatzeko modu berria bilatzera ere. Proiektu horietako bakoitzaren indexazioa gero eta garrantzitsuagoa zen, eta hainbat baliabide erabili zituen horretarako: argazkiak, 16 mm-ko zinema-laginak, eskemak, transkripzioak edo horien guztien konbinaketak.

### 3.

Darcy Lange musika ikasten hasi zen Aucklandeko Unibertsitatean, baina oso goiz utzi zuen programa oso akademikoa iruditu zitzaio-lako. Aurrerago, unibertsitate horretan bertan graduatu zen Londresko Royal College of Art-en beka batekin ikastera joan baino lehen. Behin ikasketak bukatuta, irakasle ibili zen Ingalaterrako, Holandako eta Kanadako hainbat erakundetan. Irakaskuntzarekiko zuen interes hori bere praktika artistikora hedatu zen. *Study of Three Birmingham Schools, UK* (Birmingham-go, Erresuma Batua, hiru eskolen estudioa) (1976) eta *Studies in Four Oxfordshire Schools, UK* (Estudioan Oxfordshire-eko lau eskolatan, Erresuma Batua) (1977) bere proiektu ezagun eta sistematikoenen artean daude. Bertan irakasle eta ikasleen arteko estudio konparatibo bat egin zuen Birmingham-eko eta Oxfordshire-ko hainbat eskolatan. Aipatutako *work studies* horien ezaugarri bereizgarri bat *feedback* edo berrelikatzeak duen garrantzia da; lehenik eta behin klaseak grabatu zituen Langek, eta gero zintak erakutsi zizkien irakasle eta ikasleei. Zintak ikusi ondoren, irakasle nahiz ikasleek zintak ikusten zituzten bitartean izandako erreakzioak erregistratu zituen. Oxfordeko Arte Modernoko Museoan egin zen *Studies in Four Oxfordshire Schools, UK* (Estudioan Oxfordshire-eko lau eskolatan, Erresuma Batua) (1977) lanaren lehen erakusketa, eta bertan, Darcyk eztabaida-saio bat antolatu zuen, eskola guztietako irakasle eta ikasleak eta erakusketarekin erlazionatuta zeuden artearen munduko pertsona batzuk bildu zituena. Eztabaida hori ere grabatu zuen, betiere hazbeteko erdiko zinta magnetikoaren bitartez.

El foco en *A Documentation of Calverton and Pleasley Coalmining Communities, Nottingham, UK* (Una documentación de las comunidades mineras de Calverton y Pleasley, Nottingham, Reino Unido) (1973) está puesto sobre la vida comunitaria de las minas, es decir, en las actividades que rodean la pura extracción, lo que extiende el trabajo a las actividades de ocio, de lucha, de manutención, etc., que Lange aborda desde la cercanía, desde la experiencia. Lange vio en *A Documentation of Bradford Working Life, UK* (Una documentación de la vida laboral de Bradford, Reino Unido) (1974) una continuación de su trabajo en las minas, pero el salto en escala que supuso le obligó a desarrollar un enfoque más sistemático a la hora de abordar cada uno de los *work studies*, y en consecuencia, en la articulación del conjunto. La indexación del contenido de cada uno de estos proyectos fue adquiriendo así un papel cada vez más importante, bien fuera a través de fotografías, muestras en cine 16 mm, esquemas, transcripciones, o combinaciones de todas ellas.

### 3.

